


NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUA (NPB) ETA EUROPAKO ITUN BERDEA

BARNE TAILERRA
ETXALDEKO EMAKUMEAK



HELBURUAK


- NPBren azken erreforma ezagutu (2017) eta Europako Itun Berdea (2019) ezagutu, ikusteko ez direla bata bestearekin lotutako edo integratutako politikak.
- NPB eta Itun Berdearekin ezarri nahi diren politiken azterketa egin ikuspegi feministatik.
- Testu hau hiru uneren inguruan antolatu da:
 - 2017: NPBren Erreforma.
 - 2018ko ekaina: Europako Batzorde berria eratu zen.
 - 2019ko azaroa: Europako Batzorde berriak Europako Itun Berdea planteatu zuen.



ZER DA NPB?

- -Europako Nekazaritza Politika Bateratua da. Sektore estrategiko eta oinarrikoa den nekazaritza babestera bideratuta dago.

1979an: Europako Batasunaren aurrekontuaren %72 hartzen zuen NPBk 2018an: aurrekontuaren %37,6 hartu zuen Estatu guztiek ez dute diru kopuru bera jasotzen NPBtik; Espainiako estatua 2017an laguntzen bigarren jasotzaile handiena izan zen)




NPBren egiturak **bi zutabe ditu**

- 1. zutabea diru laguntza zuzenak daude, eta %75 hartzen dute
- 2. zutabea Landa Garapenerako funtsak dira, estatuekin batera finantzatua, eta %25 hartzen dute.

2017. NPBREN ERREFORMA

ETXALDEREN USTEZ eta Via Campesinaren Europako Koordinazioaren ustez, planteatu den erreformak ez dakar lehendik zegoenarekiko aldaketa sakonik, eta ez ditu konpontzen Europako nekazarien arazoak. Ikusten da Europa mailan etxalde txikien galerak ez daukala etenik.

Gainera NPB berriaren planteamenduan, ez zaio heltzen merkatuen arautzeari, eta jarraitzen dute diru laguntzen banaketa desorekatua sustatzen (NPBren laguntzak modu injustuan banatzen dira, lurren metaketa sustatuz: zenbat eta lur gehiago izan, hainbat eta laguntza gehiago jasotzen da). Merkatuen erregulaziorik ez dagoen bitartean, nazioarteko merkatua izango da eredia ezarriko duena, eta eredu horrek industrialala izaten jarraitzen du, prezio apalekin lan egiten du (ez bazaio heltzen prezioen inguruko eztabaidari, laguntzen gaia ez da asko aldatzen).



3 helburu orokorrak:

A) Nekazaritza sektore argi, erresiliente eta dibertsifikatua sustatu, elikadura segurtasuna bermatuko duena.

B) Ingurumenaren zaintza eta klimaren aldeko ekinbidea sendotu, EBren klima eta ingurumen helburuei laguntzeko.

C) Landa inguruen ehun sozial eta ekonomikoa sendotu.

NPBREN HELBURU ZEHATZAK

1. LEHIAKORTASUNA HANDITU.

2. ELIKADURAREN BALIO KATEAREN
BAITAN BOTEREA OREKATU.

3. ERRENTA, DIRU SARRERA DUINAK.

4. INGURUMENA BABESTU.

5. GAZTEAK: BELAUNALDI ERRELEBOA
LAGUNDU.

6. ENPLEGUA ETA GIZARTE
INKLUSIOA, LANDA INGURU BIZIAK
SORTU.

7. ELIKADURA IRAUNKORRA,
KALITATEZKO ELIKAGAIAK.

8. EKOSISTEMAK: BIOANIZTASUNA
ETA PAISIAK BABESTU.

9. KLIMA ALDAKETAREN KONTRAKO
EKINBIDEA.



ETA ZEHARKAKO HELBURUA

Zeharkako helburu bat dago: Sektorea modernizatu, ezagutza, berrikuntza eta digitalizazioa sustatuz eta partekatuz nekazaritzako landa inguruetan.

NPBren aplikazioa 9 HELBURUren inguruan egitea proposatzen da, eta EBko kide diren estatu bakoitzean 2023-2027 artean gauzatzea.

Estatu bakoitzak planifikatu behar du helburu horiek zelan bete, eta horretarako Plan Estrategikoak diseinatu.

**HEMEN DUZUE ESPAINIAKO
GOBERNUAREN PLAN ESTRATEGIKOA,
OSATZEKO FASEAN DAGOENA.
ZELAN EGITEN ARI DIREN AGERTZEN
DUEN GIDA BAT.**





https://www.mapa.gob.es/es/pa/post2020/guiabasicad_elplanestrategicodelapac_tcm30-541176.pdf

NBPren tresnak

A. Merkatuaren antolaketa komunaren araudia

Honek arautzen du nekazaritzako eta abelzaintzako sektoreetako merkatuaren funtzionamendua.

Honek arautu beharko lituzke ekoizpenaren kontrola, prezioak (Europako Batasunetik kanpo datozen produktuenak), eta krisiari aurre egiteko tresnak. Hala ere, araudi honek ez die esandako helburuoi erantzuten, eta hor geratzen da agroindustriak eta banatzaile handiek egiten duten prezioen abusua (produkzio kosteak estali, soberakinak ekidin eta soberakinak dauden kasuetan erantzuna eman).



Hauxe da NPBren alderik garrantzitsuena, eta ez laguntzak. Merkatuaren erregulazio barik ez dago hazkundearentzako mugarik (diru-funts handiek lur hektarea asko eskuratu ditzakete, prezioen jaitsiera, soberakinen arazoa, etengabeko krisiak, eta abar...)

Hauxe da elikadura burujabetza lortzeko gakoa. Burujabetza hori ez da eraikitzen NPBren laguntzekin, merkatuak arautzeko gaitasunarekin baizik (aurreko NPBn bazegoena).

2. Plan Estrategikoei buruzko araudia.

Erreforma berri honen gakoa da. Izan ere, plan estrategiko horiek estatu bakoitzak egin behar ditu. NPB honen aldaketa handiena da. Plan estrategiko horiek, NPBren 9 helburuetan oinarrituta egin behar dira. Plan horien baitan hainbat elementu daude:

- Laguntzen mugak edo topeak, eta birbanaketa
- Benetako nekazariaren definizioa (genuino gazteleraz). Nun geratzen gara emakume nekazariok? (genuinas)
- Laguntza akoplatuak (hektarea kopuruaren arabera eta abelburuen arabera)
- Ekoeskemak



¿ZEINTZUK DIRA NPBREN ERREFORMAREN BERRITASUNAK?


Oraintxe aipatu diren elementuak (laguntzen topeak, benetako nekazariaren definizioa eta akoplatutako laguntzak), bazeuden jada aurreko NPBn; desberdintasuna da orain estatuek erabaki behar dutela horri buruz.

Plan estrategikoek hurbildu egiten dituzte erabakiak, gertuago dagoen maila batera. Baina era berean, NPBren “nazionalizazio” arriskua eta NPB bera ahulagoa izatearena dakartza horrek.

1.EKOESKEMEN IKUSPEGIA:


Izan daiteke tresna egokia eredu iraunkorrangoetaranzko bidea egiteko. Baina arriskua dago Ekoeskemek soilik praktika zehatzengan eragina izateko, edota eredu industrialek, teknologia aplikatuta, inbertsio berriak egin eta horrekin jada betetzat emateko iraunkortasun estandarrak. (Korporazio handiek badaukate diru nahikoa aldaketa txikietan inbertitzeko eta horrela iraunkor mozorroa janzteko, “praktika ekologikoen” marka gaindituz).

Erabaki gabe dago irizpide honen portzentajea zein izango den diru laguntzen baitan; eztabaida % 20-30 artean dabil.



Mehatxua: teknifikazioan eta digitalizazioan oinarritutako ereduak sendotzeko balio izatea.

Baina badago aukera leiho bat, benetan iraunkorragoa izango den eredu laguntzeko tresna izan dadin.



¿ZEINTZUK DIRA NPBREN ERREFORMAREN BERRITASUNAK?

GREENING DESAGERTU EGITEN DA:

Ingurumen irizpideekin lotuta dagoen BALDINTZATZE sendotuaren baitan sartzen da. Greening-a bete beharra duzu baldintzatze sendotuaren bidez, baina diru hori jada ez dago modu zehatzean. Derrigortasun horiek betetzen jarraitu beharra daukazu, baina jada ez da zuzenean kobratzen den kontzeptu bat, ez bada ze diru laguntzak bere osotasunean jaso ahal izateko baldintzen parte. Eta orain laguntza osoen %20-30 irekitzen dute betebeharrak berrien baitan (ekoeskemak), ustiategiren batek ez betetzea ere balitekeena.

Laburbilduz, NPB berriak betebeharrak izango ditu, baina ez derrigor laguntza gehiago.

Horregatik, ekoeskemen definizioa bera, benetan zer izango diren, elementu garrantzitsua izango da, horien baitan laguntzen kopuru handi bat erabakiko baita.



NPBREN APLIKAZIOA

IDEIA NAGUSIAK



BIGARREN ZUTABEAK TARTE HANDIAGOAZTEN DU GOBERNU AUTONOMIKOEN PARTE-HARTZERAKO. ZENTZU HONETAN, EUSKO JAURLARITZAK EZ DU LAN NAHIKOA EGIN NPBREN APLIKAZIOAREN GAINEAN DITUEN ESKUMENAK BALIATZEKO (EZ DUTE PLAN ESTRATEGIKO PROPIOA LANDU, ETA EZ DA EGIN SEKTOREAREKIKO INTERLOKUZIO EGOKIRIK; BAKARRIK MADRILEK EGITEN DUENAREN ZAIN GERATU).



EZ DA EGINGO LAGUNTZEN BANAKETA JUSTUA:

PROPOSATU DIREN TOPEEK, ESTATU MAILAKO LAGUNTZA JASOTZAILEEN %3RENGAN BAINO EZ DUTE ERAGITEN, ETA LAGUNTZA BIRBANATZAILEAK HAUTAZKOAK DIRA ESTATUENTZAT. BERAZ, ESTATUEN ESKU GERATUKO DA HORRETARAKO AURREKONTU PROPIOA IZENDATU ALA EZ.

NPBREN APLIKAZIOA

IDEIA NAGUSIAK



USTIATEGI HANDIEK ATERAKO DIOTE ETEKINA ERREFORMA HONI. GOGORATU BEHAR DA DIRU LAGUNTZAK HEKTAREEN ARABERA EMATEN DIRELA. BERAZ, LURREN METAKETA SUSTATZEN DA.



NPBREN PROPOSAMENAK POSIBLE EGITEN DU LAGUNTZAK NEKAZARIARI ALA HEKTAREA BAKOITZARI EMATEKO (ESKUBIDE BATZUK JASOTZEN DITUZU, BAINA KOBRATU AHAL IZATEKO HEKTAREA BATZUK BEHAR DITUZU); BESTE FORMULAN, HEKTAREA GUZTIEK DITUZTE ESKUBIDEAK TEORIAN, ZUK NEKAZARI BEZALA EZ, ETA LAGUNTZA LURRAREN JABEARENTZAKO DOA, NEKAZARIA IZAN ZEIN EZ. ESKUBIDEA HEKTAREAREN ARABERA EZARTZEN BADA (ETA HORI DA ESPAINIAKO GOBERNUAK PLANTEATUKO LUKEENA), ESPAINIAKO ESTATUAN DIRU LAGUNTZA POTENTZIALA JASOTZEKO 35 MILIOI HEKTAREA SARTUKO LIRATEKE (ORAIN 21 MILIOI DIRA). ONDORIOZ, LAGUNTZAK MEHETU EGINGO LIRATEKE, AURREKONTUA ORAINGO BERA IZANGO DELAKO.



HALA ERE, HEKTAREAKO EDO NEKAZARIARI EMANDAKO LAGUNTZA IZANDA ERE, HELBURUA EZ DA NEKAZARIARI GUTXIENENKO ERRENTA BERMATZEA, ETA GUZTIZ INJUSTUA IZATEN JARRAITZEN DU.

2018KO EKAINA

EUROPAKO HAUTESKUNDEEN ONDOREN,
EUROPAKO BATZORDE BERRIA OSATU ZEN,
ETA HONEK 3 TESTU LEGEGILE AURKEZTU
ZITUEN.



2019KO AZAROA


EUROPAKO ITUN BERDEA JAIO ZEN. HAU DA
EUROPAKO BATZORDEAREN BIDE ORRI
BERRIA EBKO EKONOMIA IRAUNKORRA IZAN
DADIN, ETA SOMATZEN DA BADAGOELA
KEZKA KLIMAGATIK, ARLO SOZIALAGATIK
ETA BELAUNALDIEN ERRELEBOAREN
INGURUAN.

Batzordeak dio aldaketa sistemikoa dela, baina ikusten dugu ez duela sistema kapitalista (eta patriarkala) aldatzen, nahiz eta lehenengo aldia den EBren baitan zeharlerroko politika bat ikusten dena, eta ingurumeneko gaiak eta sozialak erdigunean ipintzen direna. Hala ere, kontraesan handia du: ez du eredu ekonomiko neoliberalak salatzen ezta Munduko Merkataritza Erakundea kuestionatzen ere, nazioarteko merkatuak zuzendua egoteagatik.

Itun berdeak bi estrategia ditu:

A) Etxaldetik mahaira (F2F, Farm to Fork), 2020ko maiatzaren 20an egina.

B) Bioaniztasuna, 2030erako.




ZEINTZUK DIRA ITUN BERDEAK DAKARTZAN BERRITASUNAK?

Aitortu egiten ditu agroekologiaren garrantzia, nekazari txikiak eta tokiko ekoizpena. Baina EZ dago aipamen zehatzik nekazaritzan emakumeek jokatzeko duten paperari buruz.

Helburu holistiko eta transbertsalak dituen politika, elikadura osasunarekin eta ingurumenarekin uztartzen dituena.

Europako batzorde berriak Munduko Merkataritza Erakundeari egiteko proposamena dakar: elikagaien ekoizpen, eraldaketa eta banaketan sortzen diren gas isurketen gaineko mugazergak. Badakigu MMEk ez duela proposamen hau onartuko. Badakigu gure planteamenduak eta aldarrikapenak abalatzeko dituen marko politiko europar bat, agroekologia eta gure nekazaritza eredu aintzat hartzen dituen; orain ikusi egin beharko da hori zertan gauzatzen den.

Zentzu honetan, Euskal Herrian geure marko politiko bat eraikitzeke gako oso garrantzitsuak ditugu; administrazioari itun berdea aplikatu dezan exijitzeko aukera gehiago. Eusko Jaurlaritzak, orain arte, ez du ez eztabaidarik ez interlokuziorik hasi helburu horiek abiatzeko.



- **Parte hartzeko ze aukera dago benetan?**

NPBri dagokionez, estatuan eztabaida oso mugatua da. Ministerioaren mahai bat dago, eta bertara gonbidatzen dituzte antolakunde ekologistak eta nekazariak. Ministerioak berak nahi duenean egiten du deialdia. Eusko Jaurlaritzarekin interlokuzio mahaiak abiatu ditu eta eztabaidaren hasieran daude.

- **Ba al dago nekazaritzako antolakundeen eta kooperatiboen arteko eztabaidagunerik gai hauetaz?**

Administrazioei exijitu egin behar diegu itun berdeari buruzko eztabaida honetan gu ere sar gaitzen gizarte zibil gisa (guk bultzatzen dugun estrategia barnebiltzen du: kontsumo taldeak, eskola jantokiak...). Eusko Jaurlaritzan ez dira ari hau sustatzen.

EZTABAIDAK

Gai honetan aurkia eta ifrentzua egon daitezkeela ikusten dugu: alde batetik, aukera bat, baina bestetik, nekazaritzaren erabateko suntsiketa ekar dezakeen bidea.

Uste dugu Europako Itun Berdea eta Etxaldetik Mahaira estrategia aukerak izan daitezkeela eta merezi duela horien inguruan lan egitea, **eta batez ere administrazioekin interlokuziorako eztabaidak sortzea, nekazaritzako eta elikadurako estrategia horiek har ditzaten.**

“Etxaldetik mahaira” izan zitekeen guk geuk erabiliko genukeen lelo bat.

Ikaragarria da zelan osten dizkiguten hitzak. Kapitalismoak “tokiko”, “osasungarri”, edo “etiko” mozorroak har ditzake, laguntza publikoak jasotzeko.

Kontziente izan behar gara Europako marko beraren baitan oso bide desberdinak egiten direla estatuetan; oso adibide argiak ditugu Euskal Herrian, estatu frantsesaren eta espainiarraren baitan gaude-eta.

Araua beti zuzentzen zaio nekazariari norbanako bezala, baina neurriak ez doaz inoiz instituzio publikoengana zuzenduta. Inbertsioak egin ditugun nekazari (txikien) kasuak aztertzen ditugunean, ikusten dugu NBPTik jasotako diru laguntzekin BEZ eta bankuko interesak soilik ordaintzen direla. Betebeharrak instituzio publikoentzat ere ezarri beharko lirateke, ondasun komunetarako sarbidea errazteko, eta ondasun horien banaketa berdinzalea sustatzeko; elikadura eredu iraunkorra susta dezaten, azken finean.

Dana doa “diruaren” bueltan, eta hori da gakoa. Ez dira aurreikusten ekoizpena erraztuko luketen beste baliabide batzuk; adibidez, baso komunalen kudeaketa. Ura ere hasi da boltsan kotizatzen, eta hau oso kezagarria da. Eskubide historikoak eta ekoizpen baliabideak kentzen dizkigute.

Hektareen arabera banatzen diren laguntzek ekoizle txikiak zigortzen dituzte. **Eta badago genero arrakala nekazaritzako laguntzen banaketan: hartzailen %31 baino ez dira emakumeak, eta %69 gizonezkoak laguntza mota berean.** Gainera, kontua ez da soilik emakume hartzaille gutxiago dagoela; horrez gain, emakumeek jasotzen duten batz besteko diru kopurua gizonezkoek jasotzen dutena baino apalagoa da. Izan ere, emakume titularren ustiategiak txikiak edo ertainak dira (hektareak hartuta oinarritzat).

Aldaketak lortzen ari dira, baina poliki-poliki (adibidez EJa, onartu dituzte kontserba lantegi txikiak etxean instalatzea, animaliak...).

Prezioek benetako kostuak (ingurumenekoak adibidez) bere baitan hartu behar dituzten prezioak ez dira errealak.

Printzipioz, prezioen moldaketa horiek nekazari txikien onerako izango lirateke.



EZTABAIDAK

Ekologiko aipatzen dute soilik, ez eredu aldaketa. 25 Ha. lantzea eredu industrialean soilik da posible. Bioaniztasuna ezin da ekoizpen eredutik deslotu, eta ez da posible bioaniztasuna mantentzea eskala handian ekoitziz.

Ingurumenari dagokiona eta arlo soziala ere lotuta daude. Baina zelan integratu borroka ekologistak? Lurraren zaintzaren barruan, pertsonen zaintza ere egon behar da.

Elikadura sistema bere osotasunean ikusi behar da (bakarrik ekoizpenari erreparatzen diote): ekoizpena-eraldaketa-banaketa-kontsumoa-etxeak.

Banatzaille eta eraldatzaileek (Eroski, Carrefour...), eskuratzen dituzte NPBren laguntza gehienak. Behar dugu banatzaile publiko bat, izaera sozialekoa. Ekoizleok kooperatibak sortzen ari gara, eta ekoizteaz gain, banaketa egiten; karga handia da.

Hurbilekoen arteko sinergiak bilatu behar ditugu: udalak, kontsumitzaileak, jantokiak...

Emakume gutxi hartu dute parte NPBren eztabaidan, nahiz eta gure egunerokoan eragin. Amorragarria da ze eztabaidagune gutxi dagoen.

Ze eragin izan dezakegu guk, eta nun?

Etxalderen testuari ekarpena egin.

Zelan eramango dugu hau sektoreko oinarrira, tokian tokiko errealitatera?

Testu bat landuz datorkigunari buruz. Eztabaida pizteko kanpaina bat egin (oso hedatua dago EHan bertoko produktua kontsumitzen dugunaren ideia, eta ez da egia).

Emakume baserritarrei beren-beregi zuzendutako ekimenak.

Zelan eragingo ditugu gutxieneko interlokuzio guneak? Udaletara iritsi gaitzke?

ONDORIOAK ATERA aukera klabean. Izan ere, hain aukera gutxi izaten dugu ze, aitortzen zaigunean urteetan esan izan dugun hori, probestu egin behar dugula. Estrategia hau gabe ezinezkoak izango liratekeen hainbat eztabaida egiteko aukera da.

Tokiko mailan aukera handiagoa izan daiteke Europa mailan baino; geure burua engainatu barik, eredu ekonomiko neoliberalaren baitan, baina aldatzeko eta hobetzeko tarte batekin.



ONDORIOAK

Politika justuak eta koherenteak:

Europako elikadura politikak euren artean koherenteak izatea eta herritar guztientzako elikadura sistema osasungarri, iraunkor eta kalitatezkoak susta ditzaten behar dugu.

Ezin da aldi berean ekoizpen eredu agroindustrialak sustatu eta klima aldaketaren kontrako politikak garatu. Inkoherentea da.

Europako nekazaritza politikak gure elikadura ereduak birformulatzeko apostua egin behar du, premiaz, ingurumenarekiko errespetuzkoak izango diren ekoizpen eta banaketa eruedetarantz joaz.

Parte-hartzea:

Gizartearen parte-hartzea sustatu beharra dago, eta eztabaida hauek, gure bizitzetan gu konturatu barik hainbesteko eragina daukatenak, hurbildu.

Ez dira soilik gure zergekin egiten dituzten aurrekontuei buruzko gaiak, ez bada ze gure elikadura ohiturak baldintzatuko duen horretaz erabaki ahal izatea. Zer kontsumitzen dugun jakin, eta jaten dugunaren ekoizpena eta banaketa logika iraunkor, justu eta berdinzalean oinarritzen dela jakin.

Elikadura eskubidea da, eta beraz, pertsona guztiok izan behar dugu elikagai osasungarriak eskuratzeko modua, eta benetako informazioa jasotzekoa.

Beharrezkoa da "hektareen arabeko laguntzen" eskema apurtzea, horrek ekoizpenerako lurren metaketa sustatzen baitu, eta ekoizpen agroindustrial handiei mesede egin.

Hau ERABATEKO KONTRAESANEAN dago NPB berriaren helburu teorikoekin eta F2F estrategiarekin. Izan ere, belaunaldien erreleboa, enplegua eta landa inguruetako biziberritzea eta inklusio soziala, eta bioaniztasunean oinarrituko den ingurumen babesa sustatzeko...

NPBk elikadura katearen maila guztietan eredu aldaketa erradikala sustatu beharko luke (ekoizpena-eraldaketa-banaketa-kontsumoa eta etxeak).



ONDORIOAK

Beraz, laguntzen % tasatu bat ekoizpen txikietara bideratu beharko litzateke, emakumeen titulartasuna edo ko-titulartasuna duten ustiategienezako plus batekin, eta agro-bioaniztasunaren plus batekin.

Ustiategi berrientzako laguntza bereziak proiektuaren lehenengo urteetan, sektorean hasten diren pertsonen inplantazioan benetan laguntzeko. Elikadura katearen maila guztietan nekazal errenta duin eta justuaren apostua egin.

Elikagaien prezioaren erregulazio publikoa behar dugu, horien benetako kostuak barnebilduko dituen (adibidez, ingurumen kostuak).

EKOESKEMEN ikuspegiak ingurumenarekiko errespetuzkoak diren eredu osoen inplementazioari egin behar dio mesede, ez soilik praktika zehatz batzuei.

Emakume baserritarrentzako benetako hobekuntzarako aukera ekarriko duen Nekazaritza Politika Bateratua behar dugu. Laguntzen banaketa berdinzalea eta lurraldeari lotutako elikagaien ekoizpen agroekologikoa sustatuko dituen.

Horretarako:

Gure baserritarrentzako erretiroko dirusari duina behar dugu, euren lanaldia amaitu ostean biziraun ahal izateko ez dezaten NPBren diru laguntzarik behar (orain bezala). Honek erraztu egingo luke ekoizpenerako lurak askatzea gazteentzat.

Diruari lotutako laguntza kontzeptua gainditu. Laguntzek babes ditzatela elikagaien ekoizpen iraunkorrerako eta oro har bizitzari eutsi eta erreproduzitu ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak (ura, lurak, basoak...).

Gehien bat emakumeek egiten dituzten eta aitortzarik ez duten lanak balorizatu behar dira.



EUROPAKO ITUN BERDEA:

Gaur egungo eredu ekonomiko neoliberala eta nekazaritzan dauzkagun biziraupen arazoan eragile nagusietakoa den Munduko Merkataritza Erakundea benetan kuestionatuko dituen marko bat behar dugu. Eredu aldaketa sakona behar dugu; eredu aldaketarik gabeko ekoizpen ekologikoa ez da iraunkorra edo jasangarria.

Eredu agroekologikoan emakumeak duen paperaren aitortza zehatza, eta bere sustapenerako eta duintzeko neurriak (titulartasun partekatuaaren promozioa, ustiatzearen titularrak ez diren emakumeen ekarpenaren aitortza...): elikadura politika integrala, kontuan izango dituen elikadura katearen maila guztiak (ekoizpena, eraldaketa, banaketa, etxeak).

Parte hartzeko eta interlokuziorako gune errealak eta eraginkorrak sortu, non emakume baserritarrek haien beharrianak eta ekarpenak plazaratu ahal izango dituzten.

Kutsagarrienak diren produktu eta nekazaritza ereduak muga zergak ezarri.

Euskal Herrian marko politiko propioa eraiki.

Nekazariarengan zentratzen diren politikak dira, betebeharrak eta eskubide guztien subjektu gisa.

Elikadura sistemaren ikuspegi holistikoagoa behar dugu: elikadura gizarte osoaren eskubidea da, beraz, elikadura modu iraunkor eta duinean ematea ere eskubidea dela ulertzen dugu.



ONDORIOAK

- Era berean, erantzukizuna ezin da egon soilik nekazariengan, instituzio publikoek ere betebeharrak izan beharko lituzkete, eta politika hauetan txertatu, maila desberdinetan:

Adibidez:

- Udalerri eta eskualde mailako elikadura estrategien diseinuei lehentasuna eman, lurraldea eta hurbileko populazioa erdigunean ipiniko dutenak. Hemen honako gaiak sartzen dira:
- Ekoizpenerako lurren erreserbak (udal eskumena), derrigorrezkoak izaten hasi beharko luketeenak.
- Hurbileko elikagai ekologikoen erosketa publikoa.
- Ekoizle berrientzako etxebizitzaren eskuragarritasunerako neurriak.
- Produktu agroekologikoekin lan egingo duten hurbileko logistika eta banaketa plataformak sortzeko laguntza zehatzak.
- Elikadura eta nekazaritza/abelzaintza estentsiboa hezkuntzaren curriculumean txertatu, osasunarekin eta ingurumenarekin lotuta.
- Formakuntza agroekologikoa txertatu unibertsitateko ikasketetan.



Nekazaria/abelzaina
FUNTZIO PUBLIKOA ETA OINARRIZKOA
duen langilea da.
BEREHALA hasi kontzeptu hori jorratzen.

Elikagai osasungarriak, askotarikoak eta hurbilekoak ekoiztea, dauden lan esentzialenetakoa da benetan... baina okerren baloratutakoen artean dago. Horrez gain, nekazari eta abeltzain agroekologikook inolako balioztatze eta ordainik gabeko beste funtzio batzuk egiten ditugu: natura, kultura, paisaia eta gizarte zaintza.



ERANSKINA

- Ondorio bezala, baieztatu daiteke emakumeek ez dutela berdintasunezko sarbiderik NPBren laguntzetara, ustategien titularrak edo ko-titularrak ez diren neurrian. Eta hala direnean ere, ustategi txikiak direnez, gizonezkoek baino laguntza murrizagoak jasotzen dituzte.
- Era berean, ez bada aitortzen emakumeen nortasun profesionala, egiten duten lan osoaren bisibilizazio legala, ekonomikoa eta soziala eginez, baztertuta jarraituko dute nekazaritza eta landa ingurua sustatzeko politiketatik, nekazal ustategiaren baitan haien eskubideak eta betebeharrak ukatuz.
- Baieztatu daiteke NPBak sustatutako laguntzak ez daudela moldatuak emakumeek landa inguruan bizi duten errealitaterako.
- Hori gertatzen da laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko orduan lehenesten diren baldintzak ez datozelako bat emakumeek bizi duten egoerarekin: adibidez, NPBren laguntzak jaso ahal izateko, gutxieneko lur azalera deklaratu beharra dago, eta horren erabilera zehatz batzuk. Hortik kanpo geratzen dira gutxieneko azalera ez dutenak, edota autokontsumora eta soberakinen salmentara bideratzen direnak.
- Horrelako ezaugarriak dituzten partzelak gehien bat emakumeek landutakoak izaten dira. Beraz, NPBk sustatzen duena da Europako landa espazioen polarizazioa eta maskulinizazioa.



ERANSKINA

- Egoera horren zergatiaren atzean dagoena da NPBk tinko bultzatzen duela merkatura bideratutako nekazaritza sektorea. Ustiategi txikiek aukera urriak dituzte hor, eta hain justu txiki horietan ari dira lanean, gehien bat, emakumeak.
- Logika merkantilista horren oinarrian dago egungo sistema ekonomikoa, politika publikoen definizioan eragin nabarmena daukana. Kanpoan uzten dira merkatuaren esferatik at diharduten sistemak eta faktoreak, bai soziologikoak, bai ekologikoak.
- Landa inguruan horren eragin nabarmenetakoa da emakumeen lanaren ikusezintasuna; baita ekosistemen agorpena, eta elikagaien ekoizpenaren desbalorizazioa ere. Elikagaiak eskubidea dira, ez merkantzia.
- Aldiz, ekoizpen logika ezberdina duten ustiapenek potentzial handia dute, landa inguruari eusteko ikuspegi ekonomiko, ekologiko eta sozialetik, eta uste dugu elikadura burujabetzan eta horri lotutako eskubideen promozioan sekulako papera jokatzen dutela.
- Amaitzeko, garrantzitsua da gogoratzea urjentea dela kalitatezko elikagaiak arrazoizko prezioan bermatuko dituzten elikadura eta nekazaritza politiken gainean hausnartzea. Europako nekazaritzari eusteko, gure mugetatik kanpoko baserritar ekonomiak kaltetu barik, nekazarien bizi kalitatea hobetuz, landa inguruak biziberrituz, eta elikadura burujabetzaren mugimendutik zein feminismoetatik egindako planteamenduak errespetatuz.



ERANSKINA

- Ikusirik NPBk dituen ondorio ekologiko, ekonomiko eta sozialak (Europa barruan eta kanpoan), beharrezkoa da berriz formulatzea sakonki, landa ingurua eta nekazaritzako ekoizpena zuzentzen duten irizpideak birplanteatzeko, genero ikuspegitik.
- Berriz formulatze horretan nekazariei ahotsa eman behar zaie, batez ere emakumeei, beste eragile batzuekin batera. Parte hartzeko eskubidea gauzatu, eta elikadura eta nekazaritza politikak autonomiaz definitu, politika horiek pertsonen zerbitzura egon daitezen, eta ez merkatuenera.

